

DROGETEN **ITURRA**

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 228. zkia. 2014ko azaroa

A man with dark hair, wearing a green zip-up jacket and green pants, is holding a white lamb in his arms. He is standing in a barn with metal railings. In the background, several other lambs are visible in their pens. The lighting is warm and indoor.

**Eñaut Gallastegi,
ardi artean pozik**



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.** Inplantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutuzietako Irakasle gonbidatua. **Madridgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madridgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSAUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González, Dorleta
Vidal eta Ekhi Belar.**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Eva García eta Jabi Alberdi.

LAGUNTZAILEAK:Amaia Arriaga, Antonio
Hernández 'Cuco',
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López,
Pello Mugarza, Valentín
Mugarza eta Juantxo Diez.**ARGAZKIAK:**Jabi Alberdi, Igone Amesti,
Amaia Arriaga, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Eva García, Estibalitz
González, Interbiak,
Beñat Mallabia, Valentín
Mugarza, Ermuko Udala,
Xabier Ciarso, Haritz
Ramírez, Ekhi Belar eta
Dorleta Vidal.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserritarren ahotik

LEPAHORIA *Marta Martes martes*

Basoko akrobata trebe honek, bere buztan luze iletsua erakutsi nahian-edo, aidezko-buelta harrigarriak egiten daki. Txokolatearen moduko ile leun distiratsuan, ilajearen kolorea papar horian aldatzen zaio bakarrik. Haren baten gautxori xamarra delako-edo, ez da erraz ikusten den horietakoa. Beraren eta sailtxo honetan agertuko diren beste ugaztun batzuen ezaguera, ez denbora larregi gure basoetan eginiko hainbat ikerketen bitartez dugu, gehienak Ermuko saihsesbidea zabaltzeko egitasmoaren harira burututakoak. Era

askotako natura azterketa egin izan dira: geologikoak, hidrologikoak, landaretzaren gainekoak eta, zelan ez, obrak eragindako eremuan bizi diren animaliei buruzkoak, banaka batzuk desagertze arriskuan bezala katalogatuak izan direlarik. Txokotxo honetan gertutik ezagutzeko beta izango dugu.



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 Lansina Samake (Mali)	BOTEPRONTOAN20 Marcos Garcia Bolaños
ELKARRIZKETA5-7 Maddalen Zabaleta	KIROLZALE21 Ermuar eta Mallabiarak Behobia- Donostian
MALLABIAN ZER?8-9 Eñaut Gallastegiri elkarrizketa	IRITZIA22 "Misio arrakastatsua opa dizuet"
ERMUAN ZER? 10 "Paziente biziz" programa	SALEROSKETAK23 Saldu, erosi edo agurtu
25. SAN MARTIN....11-15 Argazkiak, sarituak eta berriak	ANTZINAKOAK.....24 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
EUSKARAREN EGUNA ..16 Abenduaren 3an ospatuko da	KALEKO INKESTA25 Nola ikusten duzu pintxo-potearen eki- mena?
ESKOLEN TXOKOA19 Anaitasuna ikastolaren berriak	AGENDA26 Abenduko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de BizkaiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Lansina Samake

Bamakotik irten zen Lansina 2004an, baina 2007an heldu zen Ermura. Urtebete baino gehiago eman zuen Afrikatik irteteko ahalginetan, eta horren ostean Almerian, Malagan, Murtzian eta Bartzelonan aritu zen lanean. Lau seme-alaba eta andrea utzi zituen Malin.

- Nolakoa zen zure bizitza Bamakon, Maliko hiriburuan?

Ikaslea nintzen, baina botere diktatorialaren kontrako iraultzak hasi zirenean, ikasleak mobilizatu egin ziren eta gobernuak eskolak itxi zituen urtebetez. Izan ere, boterean daudenen seme-alabek atzerrian ikasten dute, beraz, agintariei bost axola Maliko ikasketa-kalitatea. Nik alde egitea erabaki nuen, ikasten jarraitu ahal izateko eta etorkizun hobea bilatzeko.

- Eta ikasketei jarraipena ematea lortu zenuen?

Ez, denbora asko galdu nuelako bidean, urteak. Hona heltzea lortu nuenean, dirua behar nuen familiari laguntzeko. Gainera, ordura arte frantsesez ikasten nuen, eta ikasketak homologatzeak luze joko zuen. Jornalari bezala hasi nintzen lanean, eta Murtzian nengoela lortu nituen paperak. Ostean, eraikuntzan egin nuen lana eta ordutik ez naiz langabezian egon.

- Bidaia luze hura gogorra izan zen?

Emitzei begiratuta, merezi zuela esan behar dut, baina bai, oso gogorra izan zen. Malitik irten nintzenean, ez nuen Ma-



rokora heltzeko behar beste diru; beraz, Aljerian egin nuen lan 3 hilabetez, hori baita bisatuak baimentzen duen epea. Maroko oinez zeharkatu nuen, 24 bat gau eta egunetan. Mendietan ezkatututa egon nintzen, eta gau batzuetan herri txikietara hurbiltzen nintzen, janari eske. Urtebete eta lau hilabete igaro nituen gero Ceutako mugan, hesi ondoan, beste alde-ra salto egiteko aukeraren zain. Azkenean nire familiak dirua bidali zidan, pateran etorri ahal izateko. Patera hartu nuen eguna gogorrena izan zen; beste batzuen gorpuak itsasertzerara ateratzen ari zelako itsasoa.

- Espero zenuena topatu duzu hemen?

Gutxi gora behera. Gauza batzuk onerako harritu naute, segurtasunak esaterako. Hemen lasai bizi daiteke. Era berean, ez zait batere gustatzen umeek helduekiko duten errespetu eskasa eta albistegietako gertaeren kronika, beldurgarria da.

- Maliko ohiturei eusten diezu?

la guztiei. Badaude batzuk, ordea, onak ez direnak, alde batera utzi beharko genituzkeenak, eta bertan daudenei hori azaltzen saiatzen gara.

- Malira bueltatzen zara?

Bai, urtero joaten naiz. 2009an andrea eta bi seme-alaba gazteenak etorri ziren nirekin, baina hiru zaharrenak bertan jarraitzen dute. Ez dute etorri nahi, ikaske-tekin arazoak izango dituztelako. Gainera 3 urteko bikiak ditugu.

- Bertako egoera hobetu da zu etorri zinetik?

Bai, dezente. Diotenez, egungo agintariak gauzak ondo egiten ari dira.

- Eta etorkizunean, hemen jarraitzeko asmoa duzu?

Momentuz bai, umeak hazi eta erabakitze gaitasuna izan arte. Baina etorkizunean... Nire gurasoek ez zuten nahi ni hona etortzea eta hitza eman nien: haiek behar nautenean, itzuliko naizela.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskauntzen



Maddalen Zabaleta, Historian Lizentziatua:

“Herriarrek herriarekiko duten kontzientzia eta lotura handitzen lagundu dezake Bertako Bildumak”

Donostiarra izan arren, Ermuko historia ondo ezagutzen du Maddalen Zabaletak. Izan ere, hiru hilabete igaro ditu herriko Udal Liburutegian lanean Lehen Aukera bekari esker, Bertako Bilduma handitzeko ikerketa lanetan eta horri zabalkundea emateko ahaleginetan. Hori gutxi balitz, urrian burutu zen bisita gidatuen programaren arduraduna izan da. Historian lizentziatu zen duela bi urte eta Bigarren Hezkuntzako Irakaskuntza Masterra egina du, gainera Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitze, Zaharberitze eta Kudeaketa Masterrean dihardu egun buru-belarri.

- Ermuko Udal Liburutegiak kudeatzen duen Bertako Bilduman aritu zara lanean. Zein izan da zure zeregina bertan?

Bertako Bilduma zabal-tzen laguntzea, horretarako beharrezkoak izan diren ikerketa eta bilketak eginenez. Hau da, Ermuko historia eta ondarearen bilaketa, bilketa, eta ondoren zabal-kundea egitea. Izan ere, Bertako Bilduma behar batetik jaio zen: duela urte batzuk, Ermuko herritarrek ez zekiten nora jo Ermuko historia edo ondareari buruz informazioa behar zutenean, eta behar horri erantzuteko, proiektu hau abian jartzea erabaki zuen Udalak, eta Liburutegiari eman zion horren ardura.

- Proiektu itxia da edo etengabe elikatzen da?

Ez da batere proiektu itxia, ondarea eta historia ez diren moduan. Gauza asko barne hartzen ditu: batzuk historikoak dira, herriko ohiturak erakusten dituzten argazki zaharrak, edo herriko labaderoiei buruzko informazioa, esaterako. Baina baita gaur egungoak ere, Ermuak daukan ondarea natura arloan esaterako, edo musika arloan... Oso zabala da, eta zabala denez, autoelikatu egiten da nolabait, eta inoiz ez da amaitzen. Helburua da, herritarrei beraien herriari buruzko informazioa eskura

jartzea, bilketa lanetarako, aldi berean, beraien laguntza erabiliz. Oso proiektu interesgarria dela iruditzen zait, eta herritarrek herri-errikiko duten kontzientzia, bai historikoa bai gaur egungoa, eta ondorioz herri-errikiko duten lotura, handitzen lagundu dezakeena.

- Bildumari ekarpenik egiteko aukera izan duzu?

Hiru hilabetek gauza asko egiteko ematen dute, eta aldi berean, ez dira nahikoa. Arlo desberdin askotan jardun dut, baina burutu ditudan artean gehien gustatu zaizkidanak aipatu beharko banituzke, honako hauek lirateke: batetik, atal berri bat ireki dugu, Ermua prentsa historikoan deitu duguna. Bertan, batez ere Bigarren Errepublikaren garaiko hainbat egunkari ale bildu ditugu, garaiko eguneroko bizitzari buruz informazio ugari ematen digutenak. Oso interesgarria da gertaerak beraien ikuspuntutik irakurtzea, zeri ematen zioten garrantzia ikustea... Atal honek gauza asko egiteko eman dezake, bildutako berri historikoak gutxi baitira oraingoz. Gustatu zaidan beste proiektutxo bat labaderoena izan da. Orain dela ez hainbestera arte horren garrantzitsuak izan ziren elementu horiei buruzko oinarrizko informazioa bildu dugu, eta herriko emakume batek horiei buruz eskaintako infor-



mazioa ere bai, eta web orriari jarri. Horiei buruzko informazioa ere asko zabaldu liteke, argazkiak eta testigantza berriak erabilpenari buruz bilduz. Ermuak XIX. mendean eta XX. mende hasieran izandako pilotari garrantzitsuei buruzko informazioa ere bildu eta publikatu dugu. Ikus daitekeen moduan, asko dago egiteko oraindik, arlo askotan.

- Zein tresna erabili dituzu ekarpenak eduki ahal izateko?

Gaiaren arabera ezberdinak ziren tresnak, baina batez ere herritarren kolaborazioa, elkarte ezberdinena, dokumentu historikoak, liburuak...

- Lankideen laguntza ere jaso izan duzu?

Bai, eta oso garrantzitsua izan da niretzat. Azken fine-

an, Donostiakoa izanda, ez nuen herria ondo ezagutzen, eta ez nekien ondo nora jo. Beraiek gomendatu didate askotan zeinekin hitz egin gai bati buruz informazioa lortzeko, edo behar nuen elkartarekin harremanetan jartzen lagundu... Askok eskertzen diet, primeran portatu dira nirekin!

- Ermuko herritarrek, orokorrean, Bertako Bilduma proiektua ezagutzen dutela esango zenuke?

Geroz eta ezagunagoa dela esango nuke, baina bisita gidatuak egin genituenean, konturatu nintzen oraindik jende asko dagoela proiektua ezagutzen ez duena. Izan ere, aipatutakoan jendeak harridura aurpegia jartzen zuen. Ea pixkanaka ezagunagoa izatea lortzen den!

“Ermuak naturan, musikan... daukan ondarea oso zabala da”



Drogeteniturrri, 228 zkia.




ZERMIK
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 www.zermik.com
 Usaetxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12

- **Beste herri batzuetan ere, horrelako bildumarik dagoen badakizu?**

Bai, eta ia beti liburutegi lotuta. Ermuaren kasuan bezala, herritarrei informazioa eskura jartzeko behar bat ikusi duten herrietan dagoela iruditzen zait. Oso tresna baliagarria da nire ustez edozein herrirentzako.

- **Nola baloratuko zenuke esperientzia?**

Oso positiboa. Asko ikasi dut ikerketa arloan eta informazio bilketan, baina ez horrenbeste artxiboetan

eta, gehiago herritarrek egin dezaketek ekarpena- ren inguruan.

- **Halaber, urriaren 1etik urriaren 31ra bitartean herrian egin diren bisita gidatuen arduraduna izan zara. Zer da "bisita gidatuen" programa?**

Bekarekin lanean ari nintzela, Bizkaiko Foru Aldunditik mezua iritsi zen udal- txera, ea Ondareari buruzko Europako Jardunaldietan parte hartu nahi genuen galdetuz. Jardunaldi horiek herri bakoitzeko ondarea ezagutzera emateko helbu-

"Ermua ezagutu eta birbaloratzeko aukera eman dute bisitek"

ria dute eta urtero gai ba- tean zentratzen dira. Aur- tengo gaia "Etxea" zen. He- rri bakoitzeko etxe histori- koak ezagutzera eman nahi ziren. Proiektua aurrera eramatea eskaini zidaten udal- txetik, eta onartu egin nuen. Zegoen ondarea az- tertzen hasita, herritarrei informazio hori helaratzeko modurik errazena bisita gi- datu bat egitea zela iruditu zitzaidan, erakusketa bat baino parte hartzaileagoa baita, eta nolabait, etxeak bertatik bertara ikustea baimentzen zuen, interes- garriagoa eginez.

- **Zein leku aipagarri daude herrian eta zergatik dira bereziak?**

Bisitak egin bitartean ha- rrituta geratu nintzen. Er- muak ez zeukala leku bere- zirik uste zuten herritar askok. Leku ugari ditu bere- ziak, nahiz eta askotan, Er- mu aipatutakoan 60. ha- markadan egindako erai- kuntzak bakarrik etortzen zaizkigun burura. Etxean zentratu behar izan ginen hori zelako aurtengo gaia, eta horren barruan Lobiano,

Valdespina, Torreta, eta XIX. mendeko hainbat etxe sartu genituen beste zen- baiten artean. Baina horiez gain, beste zenbait leku eta gauza geratzen dira ezagu- tzeko, inork ez dezala za- lantzarik izan horretaz.

- **Eta zerk harritu du jen- dea gehien bisita horietan?**

Gehienek zioten ez zutela uste Ermuak horrelako onda- rea zeukanik. Iruditzen zait Ermua ezagutzera eman eta birbaloratzeko ere balio izan dutela bisitek.

- **Jendeak balorazio posi- tioa egin du orduan...**

Herritar askok aipatu di- date gustatu zaizkiela bisitak herriko ondarea ezagu- tzera ematen dutelako, eta herriko memoria galtzea eragozten dutelako. Guztiz ados nago beraiekin, baina era berean esan beharra daukat bisita horiek Bertako Bildumaren helburu bera du- teta. Horregatik, Bertako Bilduma horren ikusgarria ez bada ere, kalean egon beha- rrean web orrian dagoelako, berau ezagutzea gomenda- tzen diot edonori.

Dorleta Vidal



AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Eñaut Gallastegi Agirrebeitia, 23 urte:

“Eskolan pasau nittun urterik txarrenak, oin pozik bizi na!”

Mallabiko gazte honek oin bost urte erabaki eban ikesten ez ebalá jarraitu nahi eta nekazaritzara bideratu eban bere bizitza. Gaur egun 130 ardi buruz arduratu eta Idiazabal izendapeneko gazta ekoizlie be bada.

Zer dala eta hasi zihen ardi-ekin?

Txikittetik gustoko izen dittut animalixak; etxien beti ezagutu dittut. Argi neuken animalixekin zerikusixe euken zozer egittie nahi nebala...eta etxe-ko espazixue kontuen hartute, ardixek jartzie pentsau naban.

Erabaki hori hartute jendiek zer esan eutzun?

Orokorrien ez zan ondo ikusi; fede gitxikin. Ikasketak lagatzie honetan hasteko arrisku-tsue zala, ez nebala ezer egingo... pastoriek be esan eustien bertatik bizitzie sakrifikaue zala eta ez sartzeko...Sakrifikaue da, baina niri hau gustatzen jata!

Eta oin zer diñotzue?

Oin martxie hartute ikusten da banabilela eta aurrera noiela! Nik eskolan pasau nittun urterik txarrenak; oin pozik bizi naz!

130ardi daukezuz...zuretzak danak die ezagunek?

Dan danak igul ez; baiña gehienguek bai! Egunero eurekin ibiltteran, igertzen da ezberdintasune.

Zure biheran zer alde txar eta on aipauko zendukez?

Txarra, egunero disgustoren bat dauketela! Aurreko baten

5 ardi hil jatazen, ta ez dakit zegaittik! Oin egun batzuk be bi ardi mamitis cangrenosaz... Alde ona, neure bizimodue dala, eta gustora nabilela.

Zelakue da zure lan egun bat?


Sasoian arabera... 8 etan jetzi, jatekuek emon, bildotsak maneja... bazkaldu ta atsaldien barriro! Maiatza aldien ardixok mozten doguz. Udie da sasoi lasaixena; uztaila hasieratik urri bukaerara arte. Azaro amieran, bildotsak jaixo eta hor gaiñien egon bida: ia, ondo datozen, ia jaten dabien... Bildotsak kendu eta segiduen gaztaiaz hasten gara.

Gaztaian produkziñuen be bazabize...

Bai, ikastaro ezberdiñek egindde ikasi gendun. Badie 3 urte gaztaiaz hasi giñela eta oin bi urte registro sanitarixue lortu eta Idiazabal izendapenien sartu giñen. Ni ardixekin eta horren biherretaz arduratzen naz. Ama da gazta prozesu gehixena daroiena. Eskerrak amai!

Zer baldintza bete biher izen dozuez Idiazabalen sartzeko?

Askok. Inportantienak: Norberan esportaziñue auki-



tzie, ardi latxak izetie, analitikak eta eurek jarritteko baldintza sanitarixuek betetzie eta urtien ataritzen dien gaztak deklaratzie.

Onurarik suposatzen dau?

Izen haundidun markie da, prestigiosue...eta holan be exigitzen deuskue analitika eta abarrak! kalera begire erreztasunaz saltzen da... Etxien 15? Pagatzeko pegak jartzien dittunek azokan 18 emoteko prest!

Non erosi leike zuen gaztaie?

Mallabin Trabaku Goiko, Jubiletxe eta Bastida tabernetan. Ermuen Lazkano harategixen eta Maiten txarkuterixan.

Azoketan be ibiltzen hasi zan...

Oin arte hirutan egon naz: ekaiñien Mallabixen, urrixen

Truciosen eta aurreko astien Ermuen.

San Martin azokan bigarren sarixe lortu zinun. Zorionak! Zer moduz joan zan goiza?

Edarto! Pentsau baino askoz hobeto. Jendian aurrien egotie ez jata asko gustatzen baina gustora egon nintzen. Amagaz jutekue nintzen, baina azkenien Xabatek, kua-drilako lagunek, lagundu nindun. Hau bai holakuetarako pertsona aproposa. Eiderrek be, nire arrebiek, laguntzen deuste azoka eta salmentetan.

Hurrengo azokarik?

San Andresetan lekue bada; bestela Lekeittixoko Santo Tomasak.

Zure gaztaie erosteko?

Esandako lekuetan, gurien Onandin edo telefonoz 680647234.

Oh la lá!



Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

Drogetenituri, 228 zkia.

OSASUNA + ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

UDALETIK DATO-ZENAK

Calvario kalien ruina egoeran deklaraturik dauezan lau etxebizitzak botatzeko adjudikaziñue egin dau udalak. Hil honetan burutu dau esleipen hau, eta Lasuen Eraikuntzak enpresari egokitu jako lana. Honek hiru hilabeteko epie eukiko dau lau etxiok botatzeko.

Mallabarrenako auzo-konpost gunie handitze-ko lanak egingo dabez. Gune horretan erabiltzaille kopuru haundixe dauela eta txiki geratu dala ikusitue, bikoiztu egingo da bertan konpostadora kopurue. Lanak egin eta gero, 80 familia inguru sartuko dira bertan.

Ludoteka barrizeko obrak aurten hasiko die. Lokal honek daukezan premiñak ikusitue, barrizte lanak hasi nahi ditte aurten udalak. Obra horren barruen, itogiñek, komunek eta irisgarritasunari begire konponketak egittie aurreikusten da.

Auzuetan dauezan farolak aldatzen dabiz, LED erakuek ipiniz. Dauezan

farola danetako bonbilak aldatuko dabez, eta LED tipoko honek kontsumo txikikuek izenik, gastue murriztie espero da. Holan, hemendik aurrera, gau osuen piztute egongo die barrero.

SANTA ZEZILIA ETA GAZTANERRE EGUNE

Azaruak 22xen, iluntziko 20:00etan Jasokunde elizan Santa Zeziliako kontzertue ospatuko da. Bertan, Mallabiko Trikitixa eskolako trikitilarixek, eta herriko hiru abesbatzek parte hartuko dabe, Jasokunde, Mendibil eta Lagun Artean ahots taldeak. Kontzertuan ostien, azkenengo urtietan egin dan moduen, Orraitio Euskara Elkartian eskutik, elizpien gaztainerre jana egongo da.

MALLABIREKO BERRIEMAILIE BILE

Drogeteniturrriko Mallebiko atala bete ahal izateko borondatezko berriemaiie biher da. Idazteko zaletasune baldin badaukezu, edo ta herriko barri jakin eta

MALLABIA
Santa Zezilia eguna

AZAROAK 22
Iluntzeco 8etan
Jasokunde elizan

kontzertua

Mendibil
Jasokunde
Lagun artean abesbatzak
Mallabiko trikitixa eskola

Ondoren gaztainerre egingo da

Antolatzailea: Mallabiko abesbatzak
Babeslea: Mallabiko Udala

jakitera emotie gustauko balajatzu, animau eta jarri gurekin harremanetan. Horretarako ondorengo emailera idatzi drogetmallabia@hotmail.com edo Ermuko

Euskal Biruseko egoitzara jo edo deittu: 688632876
LAGUNTZERA ANIMAU!!!!

Igone Amesti eta Ibaia
Azagirre

hamburguesería
TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



GOIENKALE Z/G
ERMUA
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7
ARRASATE
Tel. 943 770 598



MALLABIKO
Herriko
taberna



Eguneko platera (3€)
menua bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

943 174 952

(asteartetan itxita)

Carmen Colino, erizaina, eta Espe Campos, pazientea:

“Paziente bizia programak hitz arruntekin azaltzen ditu diabetesaren gorabeherak”

Duela bi urte abiatu zuen Osakidetza ‘Paziente bizia’ programa, auto-zainketa sustatzeko helburuarekin. Nork bere burua zaintzen ikasteko hainbat ikastaro egin dira dagoeneko Ermuan, Lobianon, eta beste hainbat herritan Eskola horietan hasieratik hartu dute parte Carmen Colino eta Espe Campos ermuarrek.

- Zein da ‘Paziente bizia’ programaren helburua?

Pazienteek euren burua zaintzen ikastea, proaktibo izatea: euren gaixotasuna ezagutzea, arduratsu jokatzea, euren egoera ulertzea... Hori lortzeko bi ikastaro mota daude: bata gaixotasun kronikoak dituztenei eta euren senideei zuzendutakoa eta bestea diabetesa dutenei eta euren senideei zuzendutakoa. Ermuan azken hori bakarrik egiten dugu.

- Zuek zarete Ermuko ikastaroetako arduradunak?

Ez, gu beste herri batzuetan aritzen gara. Izan ere, programa horren gakoa da osasun-metodologiak kanpo dagoela. Hau da, paziente batek hitz arruntekin

azaltzen dizkiela gainerako gaixoei euren eritasunaren inguruko gorabeherak. Hala ere, ikastaro horrek ez du kontsultako informazioa ordezkatzeko, osatu baizik. Kontsultan ez dugu denbora asko, hiru hilero ikusten ditugu pazienteak, jendearen jarrera batzuetan negatiboa da kontsultan sartzean, harresi bat egongo balitz moduan, ez dute galderarik egiten... Hori dela-eta, erizainok kamuflatuta joaten gara ikastaroetara, laguntzaile gisa.

- Zenbat saio egiten dira ikastaro horietan?

Orain arte sei saio egin izan ditugu, baina orain beste saio bat gehitu diogu. Zazpi astetan ematen da, astean bi orduz. Boluntarioak dira eta doakoak.



- Jendeak erraz ematen du informazio nahikoa du?

Ez, asko kostatzen zaigu jendea lortzea: “Buf, zazpi egun, bi ordu!”, “Ene, hor egotea, ez dut jakingo zer egin...!”. Medikuek kritikatzeko da errazena, hau egin behar dugula esaten digulako eta beste hori ez. Bitartean, zer egiten dugu pazienteok? Zer ipintzen dugu gure aldetik? Ezer gutxi! Eta Osakidetza horrelako kontu batean parte hartzeko aukera ematen dietenean pazienteei, aukera pasatzen uzten dute askok. Ezagutzen ez dugunari beldurra diogu, baina lehen klasera etorri eta gero, ez dute kale egiten. Askok laguntzen diogu elkarri eta gero pena ematen die bukatzea.

- Jendeak, orokorrean, diabetesaren inguruko

informazio nahikoa du?

Kontua da diabetesak ez duela sintomarik, eta jendeak ez dio kasurik egiten arazoren bat izan arte, begietan, esaterako. Lehen saioan guztiek diote ondo jaten dutela, kirola egiten dutela... saioak aurrera joan ahala, baina, aitortzen joaten dira: badakite zer egin behar duten, baina ez dute egiten.

- Noiz egingo da hurrengo ikastaroa?

Udaberri inguruan. Orain, azaroaren 26an ikastaro bat bukatuko dugu. Informazioa jasotzeko nahikoa da ambulatortara etortzea, gainera hainbat kartel ipiniko dira botiketean eta jubilatuen etxean. Interneten ere, informazioa topa daiteke.

Dorleta Vidal



Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

Drogeteniturrri, 228 zkia.

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

XXV. SAN MARTIN AZOKA

ESKERRIK ASKO EUSKAL BIRUSEKO BAZKIDEEI, AHAZTEN ZAIGUN BATEN BATI ETA OROKORREAN ERMUKO HERRIARI!

Talagintza: Lurdes Arrizabalaga / Mari Paz Araiztegi / Juanita Aspiaz / Maritxu Etxebarria / Mari Nieves Arregi / Aner González / Mari Karmen Urkidi / Marijose Goigogana / Maddi Goikoetxea / Idoia Goikoetxea / Maitasun Idigoras / Gloria Mallea / Begoña Aginaga / Miren Astarloa / Miren Bego Ugena / Begoña Laka / Maite Areitioartena / M^a Asun Aranburu / Maite Alzola / Lutxi Alegria / Irune Aranberria / Pello López / Julia Basagoiti / Karmeale Astarloa / Leire Martín / Maite Yarza / Maitane Millán / Idurre Zuazua / Odile Guirado / Andrea Díez / Lara Alonso / Lurdes Perosanz / Esther Aldalur / Libe Elizondo / Naroa Mateos.
Muntaketa/desmuntaketa: Juanjo Solozabal / Endika Fernández / Josu Garitagoitia / Jose González / Bea Narbaiza / Alicia Lejardi / Fernando Aranberri / Jose Carlos Ibaibarriaga / Koldo Aranberria / Olatz Gil / Nahikari Benito / Kepa Unibaso / Mikel López / Eneko Egialde / Mikel Zatika / Iraide Uriarte / Juanca Cadavid / Cuco Hernández / Gus Blanco / Edu Arginzoniz / Maria Ormaetxea / Jokin Mugerza / Danel Gorritxategi / Maite Hormaetxea. **Ticketak:** Yolanda Unamuno / Idoia Narbaiza / Dani Dominguez / Roberto Bilbao / Edurne Madariaga / Marga Pérez / Juantxo Díez / Pello Díez / Aroa Cernada / Manex Prieto / Maialen Arrizabalaga / Nerea Eizagirre. **Sahieskia:** Alex Idigoras / Aroia Lejardi / Oier Araiztegi / Aintzane Plaza / Jokin Txapartegi / Irune Yarza / Oier Egaña / Egoitz Gerrikabeitia / Manolo González / Jesús Gómez / Mariano Casado / José Antonio Lejardi / Juan Ramón Areitioartena / Malen Eizagirre / Lidia Jiménez / Naiara Mateo.

Txikiurtxak: José Antonio Martínez Carbajo / Arantxi Perosanz / Alberto Belar / Julen Berriozabal / Antxon Ziarsolo / Germán Pérez / Roge Bouza / Miguel Fernández / Andoni Esmeralda / Jabi Gorritxategi / David Elejalde / Eli Areitioartena / Juanjo Gorritxategi / Xabi Iturriagoitia / Ander Idigoras / Txotxi Iturriagoitia / Iñaki Elgea / Jon Unanue / Iker Aranda / Beñat Redondo / Josu Gómez / Ane Nogales / Iratxe Odrizola / Maria Ormaetxea / Clemen Corredera / Mireia Arginzoniz / Rosa Bañuelos / Begoña Fernández / Iñaki Delgado / Cristina Palacios / Noelia Moyano / Usua López / Alazne López.. **Buruko zapatak:** Mari Karmen Urkidi / Maite Areitioartena. **Auruko/ondorengo egumotuz:** Juan Antonio Izagirre / Izagirre sendia / Lucia Aldalur / Mari Feli Manzidor / Felitxo Araiztegi / Rober González / Jon Telleria / Ines Arano / Aitzol Lejardi. **Udalak/orokundeak:** Ermuko Udala / Mallabiko Udala / Eibarko Udala / Kutxabank / Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila. **Epaimahaiak:** Lorena López / Luis Mari Malaxetxebarria / Esther Astarloa / Ainhoa Cid / Laura Cruz. **Erretak:** Anboto / Baúl de Natalia / Egolek / Gauzak / Miguel / Pro / Sehiga / Solozabal / Todo a 100 Idoia / Capero's / Dakota / Déjate querer / /Ertz / Hanigan's / Herga / Infreñu / Kaitxango AEK / Karikato / Lurpe / Moloko / Outomuro / Pata Negra / Sagarra / Secretos / Sirimiri / Sorgin / Titanic / Torrekoa / Txalaparta / Txantxiku / Yomy / Jon Garitagoitia / Jon Areitioartena / Julen Solozabe / Josu Gómez / Maria Ormaetxea / Odile Guirado / Libe Areitioartena / Izaro Areitioartena. **Erakusleku lehiakotak:** Senen eta Yonari Bitxidendak / Anboto eta Urreta Burdindegiak / Arrieta Elektrogailudendak / Egolek Elektrizitadedenda / Gorritxategi eta Solozabal Estankok / Mari eta San Pelayo Fruitadenda / Gozo-toki, Villa de Ermua eta Txutxerías Gozodendak / Miguel Harategia / Irale Hertz Klinika / Dotek Igeltzeritza / Marfil, Kraby eta Mados Ileapaindegiak / Cocoliso, Quetzal, Angela, Peke's, Nane, Oh la la!, Sehiga, Koopera Store eta Garot@s Jantizidendak / Kupela eta Mayte Jatekodendak / Gauzak Kinkiladenda / Maribel Liburudenda / Eguzkilore eta Mari Asun Loradendak / El Baúl eta Procolar Margodendak / Alboka Musika Eskola / Cande Oihaldenda / Zapataxiki eta Eder Oinetakodendak / Artarrai Oparidenda / Itze Optika / Orbe Pertsianak / Sagardui Poltsadenda / Hanigan's eta Beer Station Tabernak / Elkartasun Tonbola. **Bestelakoak:** Jon Larrañaga / Alain Landarroitauregi / Estitxu Saenz de Zaitegi / San Antonio Okindegia / Santxau Parrokia / Txalaparta taberna / Xabier Ciarsolo / Ekhi Belar / Iñigo Pro / Bertia Egunkaria / Anboto Burdindegia / Zutabe / Anittu-goiko baserria / Montse González / Gaizka Zamakola / Aitzol Redondo / Jone Redondo / Miguel Angel Mugerza / Hirunagatziki baserria eta bertako "Pantxika" astoa / Javier Osoro / Angel Uriarte / Aitzol Uriarte / Eztakua-goiko baserria. **Taldekak:** Euskal Birusa Elkarte Kulturala / Kaitxango AEK Euskaltegia / Antxitxiketan Aisialdi Taldea / Alboka Musika Eskola / Txindurri Txistu eta Dantza Taldea / Merkatu Plaza / Eskolabari / Txalaparta Elkarte / Leku-Eder Elkarte.. **Etxekoak:** Joseinas Larrañaga / Nagore Espilla / Rosa Jaussi / Gaizka Areitioartena / Marines Txurruka / Asier Ibaibarriaga / Manuel Moreno / Nerea Berriozabal / Eli Txurruka / Tere Uriarte / Estibalitz González / Alazne Aiestaran / Ihart Redondo / Nerea Redondo / Eider Gisasola / Unai Rodríguez / Iratxe Arrizabalaga / Nerea Izarra / Piedi Eizagirre / Ane Sáenz / Dorleta Vidal / Igone Amesti / Amaia Arriaga

Argazkiak: Haritz Ramirez, Xabier Ciarsolo eta Ekhi Belar.

• san martin azoka • abereak • erromeria •

• epaimahaia • txerria • postuak • talogileak •



hegaztiak • umeentzako jolasak • dantzariak

abere erakusketa • jantzi lehiaketa • artisauak • astobusa • jol



SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK

Aurtengo epaimahaia honako hauek osatu dute: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobide, Idiazabal gaztako teknikaria den Bittor Rodríguez, Luis Mari Malaxetxeberria herriko ordezkari bezala, Ermuko Udaleko ordezkari bezala Lorena Lopez eta Asier Ibaibarriaga Euskal Birusaren izenean.

FRUTA ETA ORTUARIAK

- 1. saria: Mila Amillategi, Barrenetxe baserria (Mallabia).
- 2. saria: Maria Pilar Mallabia, Agarre baserria (Mallabia).

GAZTA

- 1. saria: Florencio Txurruka, Barroeta Torre baserria (Markina).
- 2. saria: Eñaut Gallastegi, Onandi baserria (Mallabia).

OGIA

- 1. saria: Maite Leanizbarrutia (Elorrio).

EZTIA

- Milalore eztea: Valentin LLona (Urikoa-Zornotza).
- Txilar eztea: Valentin LLona (Urikoa-Zornotza).

SAGARDOA

- Iker Uribarri (Gordexola).

TXAKOLINA

- Jose Antonio Bilbao (Markina).

AIPAMEN BEREZIA

- Antonia Ogiza, Baskaran baserria (Markina).



TXERRIAREN ERRIFAREN ZENBAKIAK

- 1. saria: Txerria edo 400 euro: 4294.
Irabazlea: Yomy taberna.
- 2. saria: Landetxe batean asteburu pasa: 1114.
Irabazlea: Sehiga.



ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

- 1. saria: Senen bitxidenda.
 - 2. saria: Solozabal estankoa.
- Epaileak: Gaizka Areitioaurtena eta Laura Cruz.



BASERRITAR JANTZIEN LEHIAKETA

- Neska: Ihart Redondo.
- Mutila: Aritz Gerrickabeitia.



Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eralkina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua · Bizkaia

Txerriaren ostean... gaztainak!



San Martin Azokako biharamonari aurre egiteko, Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Berbalagunek Gazteñerre eguneko afaria antolatu zuten, ohitura den bezala, azaroaren bigarren astelehenean. Bertan euskara ikasle, irakasle, Berbalagun eta Euskal Biruseko kideak bildu ziren. Gaztaina erre eta kantu artean ospatu zuten eguna.



Babarrunak, azoka eguneko dieta

San Martin egunaren ospakizunaren artean, usadizo bihurtuta, herrian babajan ugari antolatu ziren han hemenka. Goizeko martxa atzean utzi, eta arratsalde eta gauari indar betez ekiteko, askok eta askok babarrunak izan zaituzten jangai herrian.



Mikel Yarzak irabazi du Kaltxango AEK-k San Martin azokan zozketatzen duen otzara



Ingeleseko Trinkoak eta Cambridge Azterketetarako Prestakuntza

Orain ahal duzu! Egin ezazu bi maila edo gehiago urte batean!



Guztia konprimatu dugu, kalitatea izan ezik!

FCE

CAE

CAMBRIDGE

Zuk zeuk ikusi gaingituen tasa handia

Akerlei
hizkuntzak

Try life in another language!

Euskararen Eguna ospatuko da abenduaren 3an

‘Euskarak 365 egun’. Le-lo honen pean ospatuko da, bigarren urtez, Euskararen Eguna Ermuan. Abenduaren 3an izango da zita eta hainbat ekintza antolatu dituzte herriko kolektiboek.

Joan den urteko erantzun ona ikusita, gogo eta ilusio handiz prestatu dute aurtengo Euskararen Egunean burutuko diren ekintzak. Gainera, aurten beritasunak izango dira programan.

Goizean, Ermuko eskole-tako DBH-ko ikasleek hitzaldi bat jasoko dute.



Oraindik zehazteke dago hitzaldiaren edukia, baina iaz Mikel Markezek eskainitakoaren arrakasta bera izatea espero dute antolatzailerak.

Arratsaldean, eskola orduan, Lehen Hezkuntzako ikasleek eurek aurretik prestatutako antzerki edo kantaldia eskainiko dute Ermuko Antzokian.

Emanalditik irtetzerakoan, umeentzako jolasak egongo dira Antxitxiketan taldearen eskutik.

Ekintzek, hala ere, arratsalde osoan zehar jarraituko dute. Plazan, 6etan, sagar banaketa egingo da. ‘Euskara ahora’ eramateko, bertara hurbiltzen den edonori sagarrak banatuko zaizkio. Sagarrak nahikoa ez badira, aurten beritasun bat gehitu diote antolatzailerak. Antxitxiketane-koen laguntzaz, txokolata da egongo da plazan. Aipatzekoa da, gainera, txokolata Euskal Birusaren edalontzi erabilgarrietan banatuko dela.

EUSKARAK 365 EGUN

noiznahi, nonahi
orain, hemen



365egun.eu

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

ARINKA OINETAKOAK

Andra, ume eta gazteentzako zapatak

Sexto Centenario, 17
ERMUA (BIZKAIA)
943 174126

Montis DQ Mouth

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

DESCUBRE-TE

Teak, kafeak, txokolateak, ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.com
www.teteriadescubre-te.com



>>> Ikusten duzu aldeak?
Zure esku ere badago

ZURE SALTOKIA ETA ZU

PERTSONA, HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 Hertz Klinika - Clínica Dental
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirujia
 • Periodontzia • Implanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
 www.irale.com

Yoga eskola
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

Sanatana Dharma
 San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia)

san pelayo
 clínica dental hertz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hertz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregu
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta inplante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hertz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

 Hertz klinika berritu eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA 
 Cristina Garcia Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 • Elikagai biologikoak
 • Terapia naturalak
 • Naturopatarekin kontsultak
 • Masajeak
 • Dietistarekin kontsultak
 • Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera**

Anaitasuna ikastolakoak Baserri baratze-eskolan izan gara...

Urriaren 20tik 22ra Anaitasuna Ikastolako 4. mailako ikasleok naturaz gozatzeko aukera paregabea izan genuen eta Bizkaiko Urdaibai-kostaldean Biosferako Erreserban kokatuta dagoen Baratze izeneko Baserri Eskolara. Hiru egun zoragarri pasatu genituen, gustura pasatu ere. Hau zorzea!

Toki liluragarri horrek naturari buruz gehiago jakiteko eta norberaren jakin-min hori asetzeko parada polita eman zigun. Horrekin lotuta, mota guztietako tailerrak ere egin genituen: gozogintza tailerra, lurra eta zura landu, etxe-abere-

ak zaindu, zaldiz ibili, bertako basoko animaliak, zuhaitzak, lorak... aztertu eta ikusi. Hori guzti hori egiteaz gain, jolasean, dantzan, korrika eta besteekin kantuan aritu ginen, primeran pasatuz. Esperientzia benetan dotorea izan zen, dibertigarria.

Beste eskoletako neska mutilak ere ezagutu genituen eta eurekin jantokia, jolaslekua eta dantza-lekua partekatu genituen.

Baina mundu honetan hasierak bukaera duen moduan etxera itzultzeko ordua etorri zitzaigun. Batzuk etsipenez, beste batzuk, ordea, pozik eta nekatuta baina denok gustu-



ra. Gure abentura zoragarria bukatu zen, oroitzapen atseginak bakoitzak barnean ditugularik.

...eta Deban kostaldea aztertzen!

Urriaren 24ean Ermuko ikastetxe guztietako 200 ikasle ingururekin, 6. mailakoak Debako hondartzara trenez joan ginen kostaldea aztertzeko.

Esperimentu batzuen bidez uraren kalitatea aztertu genuen: besteak beste, nitrato eta fosfato maila, PHa, temperatura, oxigeno disolbatua...

Horrez gain, itsas animaliak eta bertako landaretza biltzeko denbora ere egon zen: itsas-izarrak, anemonak, kiskilak, isats-trikuak, esponjak, karramarroak eta arrainak...



Ikastolako haur hezkuntzako umeeek Gaztainerre Eguna ospatu zuten

Zoritarrez, zaborra ere aurkitu genuen, baina itsasoko uraren kalitatea ona

zela frogatuta pozik gelditu ginen. Eguna bainu eder batekin bukatu genuen.

Udazkeneko zuhaitza

Anaitasuna Ikastolako Lehen Zikloko Ikasleok euskararen erabileraren aldeko kanpaina burutuko dugu hiru astetan zehar, azaroaren 10ean hasita.

Gela bakoitzean zuhaitz bat ipini dugu eta egunero ikasleok gure artean komunikatzeko euskararen erabileraren arabera zuhaitza osatzen joango gara.

Zuhaitza osatzea lortzen dugunean "sorpresatxo" bat izango dugu ikasleok.

TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299



optika

ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

MARCOS GARCIA BOLAÑOS

- Haurzaroko anekdotarik?

Behin mono-patinetik jausi eta bi paletak apurtu nituen. Negar batean joan nintzen izebarengana, apurtutako bi haginak ematera.

- Zer ikasi zenuen?

Oinarrizko ikasketak, eta mekanikazioko ikastaro bi egin nituen. Bata Elgoibarko IMH-n eta bestea Lea-Artibai Markinan.

- Noiz hasi zinen lanean?

Ikasketak bukatuta, 19 urterekin hasi nintzen beharrear Mendiguren enpresan. Aurten baina enpresa likidatu eta martxoan kaleratu ninduten beste 150 langilerekin batera.

- Eta orain?

Elektromekaniken mantenua ikasten nabil IMH-n. Zaila egiten zait berririko ikasten hastea, trigonometria eta formulak batez ere.

- Zelan eboluzionatu du hezkuntzak?

Orain denetarik irakasten digute, baina ez dakigu ezertaz. Eta horrek ez digu mesederik egiten!

- Etorkizuna...

Ilun ikusten dut. Moduluak irtenbide asko du, baina ez hemen, kanpoan.

- Aisialdian zer?

Familia, lagunak, gim-



32 urte ditu Marcos Garcia Bolañosek. Hiru neba-arreben artean bera da gazteena. Krisiak behartuta, hamabi urtez lanean izan zen enpresa likidatu, eta ikasketei heldu behar izan die berriz ere. Arrotza egiten bazaio ere, apurka-apurka moldatzen eta nota onak ateratzen dabil.

nasioa, bizikleta...

- Biziorik?

Lehen asko erretzen nuen, baina duela bi hilabete utzi diot.

- Musika...

Denetarik entzuten dut.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Telebista piztu eta notizia txarrak ikusteak.

- Zein albistek poztuko zintuzke?

Langabezia bukatu dela,

jendea gosez hiltzen ez dela...

- Zer iruditzen zaizu Katalunian egin berri den ariketa demokratikoa?

Ondo dago herriari galdetzea, demokrazia batean herriak izan behar duelako hitza.

- Egunero kale egin gabe egiten duzun hori...

Dutxa hartzea (barre artean).

- Zein toki bisitatu du-

zu?

Costa Rica, Paris, Eivissa, Malaga, Kordoba, Asturias ...

- Nahi baina egin gabe duzun hori...

Argentinara bidaiatzea gustatuko litzaidake, haragi erre ezin hobe baitago bertan.

- Zelan moldatzen zara hizkuntzekin?

Ingelesarekin nahiko ondo, baina kostatu egiten zait.

- Euskara...

Moduluko ikaskideekin euskaraz egiten dut, baina ez naiz askotan animatzen, lotsatu egiten naiz, moztu.

- Zelan definituko zenuke zure burua?

Konstantea naiz, aplikatua, zintzoa, maitagarria...

- Akatsik?

Onegia naizela.

- Kolore bat?

Kolore ilunak batez ere.

- Jateko zer?

Pizza!

- Zer miresten duzu pertsona batengan?

Bihotz onekoa izatea.

- Nola bizituko zenuke herria?

Betiondon igerileku irekiak eraikiz.

- Mendia ala itsasoa?

Biak. Batean lasaitasunean arnastu eta bestean beltzaran jarri.

Leire Elustondo

Pub Dakota



Probaleku, z/g Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Behobiatik Donostiara korrika bizian

Joan den igandean 30.000tik gora korrikalari bildu ziren Behobiatik Donostiara doan errepidean. Euren artean 35 ermuar eta mallabitar. Eguraldia lagun, lasterketaren 20 kilometroak txalo artean egin zituzten. Lehia eta festa giroa ez zen falta izan. Bai esfortzua egin zutenek, bai animatzen aritu zirenek, bere guztia eman zuten gero eta ezagunagoa den zita honetan.

Behobiako kaleetan ez zegoen beste inorentzako tokirik azaroaren 9ko goizean. Katalunia, Frantzia, Madril, Asturias eta beste hainbat tokitatik etorritako jendea batu zen Behobia-Donostia lasterketaren 50. edizioan. Batzuk lehiatu eta marka ona egiteko asmoarekin, beste batzuk 20 kilometroak betetzeko desirarekin, giro paregabeaz gozatu zuten denek.

Donostiko Boulevardeko helmugara iritsi zen lehen

ermuarra Alberto Martin izan zen, 1:19:38 bere denbora eta 925. postuan amaitu zuen lasterketa. “Gehien gozatu dudana aldia izan da. Denbora onena lortu eta gutxien sufritu dudana”, dio. Albertok Donostiako maratonia prestatzeko hartu zuen lasterketa, baina bere esanetan, jendearen animoek aurrera eramaten dute korrikalaria eta “topera zoaz azkenean”.

Laugarren aldia da Behobia-Donostian parte hartzen



Juanmi Bravok lehengusuekin egin zuen lasterketa

duena. “Giroa izugarria da. 30.00 korrikalari, afizioa edonon... sentimendu ugari batzen dira”. Eguraldi ona ere azpimarratzen du Albertok, “astroak elkartu ziren”.

Helmugan, Asier Arellano izan zen Mallabiko onena. Ez zen lehen Behobia-Donostia berarentzat. “Lau bider egin dut lasterketa eta aurten lortu dut denborarik

onena”. Aurreikuspenak beste zituela aipatzen du: “Baina aitortu beharra daukat hobeto egitea espero nuela”. Hala ere, “nahiz eta une txarrak ere pasatu”, lasterketa egunean gustura ibili zen.

Korrika egiten gehiago edo gutxiago ibiltzea albo batera utzita, Behobia-Donostian parte hartzen dutenek bide osoan zehar bizi den giroa goraiatzen dute. Lasterketaren irabazleak helmugan esan bezala, “Behobia-Donostia publikoari esker da orain den lasterketa”. Juanmi Bravo ermuarrarentzat ere, “kirol-esperientzia ezin politagoa da”.

Juanmi ez da lasterketa honetara lehiatzera joaten. “Ezarritako erritmoa inguruan dugun guztia ikusteak ematen digun gozamenara egokitzen dugu”. Hala ere, bidea egin behar da, “ez dezala inork pentsa hogeita kilometro korritzea ahuntzaren gauerdiko estula denik!”.

Ekhi Belar

925	Alberto Martin	Ermua	1:19:38
1388	Berex Ortiz	Ermua	1:22:00
2161	Ander Carmona	Ermua	1:24:27
2177	Oscar Medina	Ermua	1:24:28
2674	Fco. Javier Rabadan	Ermua	1:25:55
2898	Asier Arellano	Mallabia	1:26:32
4587	Andoni Aldape	Mallabia	1:29:29
4587	Javier Muñoz	Ermua	1:29:46
4979	Luis Perez	Ermua	1:30:31
5830	Ander Garitagoitia	Mallabia	1:32:01
5932	Jon Unanue	Ermua	1:32:11
6271	Imanol Zubia	Ermua	1:32:43
6669	Xabat Uzuriaga	Mallabia	1:33:27
7634	Raquel Medina	Ermua	1:34:57
7674	Roberto Gonzalez	Ermua	1:35:00
7992	Unai Uzuriaga	Mallabia	1:35:29
9510	Juan Jose Saez	Ermua	1:37:40
9983	Juan Carlos Gomez	Ermua	1:38:20
9984	Miguel Angel Montañes	Ermua	1:38:21
9996	Oier Guede	Ermua	1:38:22
10819	Ibai Zubiria	Mallabia	1:39:26
10871	Enrique Aranda	Ermua	1:39:31
12019	Jesus Pardo	Ermua	1:41:02
15315	Asier Guede	Ermua	1:45:50
15605	Joaquin Arroyo	Ermua	1:46:18
16006	Jose Luis Dacosta	Mallabia	1:46:56
16401	Jon Gorritxategi	Mallabia	1:47:31
16406	Ander Yarza	Mallabia	1:47:32
16798	Alexander Conde	Ermua	1:48:06
17699	Jaime Oneca	Ermua	1:49:32
17705	Jose Antonio Fernandez	Ermua	1:49:33
19276	Ana Martinez	Ermua	1:52:26
21449	Asier Castro	Ermua	1:56:50
21715	Juanmi Bravo	Ermua	1:57:20
22975	Nerea Azpiazu	Mallabia	2:00:30



Alberto Martin Gaintxurizketan gora

Caperos

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Misio arrakastatsua opa dizuet

Joan den udan, Israeliek "Marjina babeslea" operazioa gauzatu zuen Gazako biztanleriaren kontra. Oidarraldiak emaitza dramatikoak utzi zuen: 2.000 hildako baino gehiago, 10.000 zauritu eta 20.000 etxebizitzatik gora erabat suntsituta. UNICEFek argitaratu emandako datuen arabera, biktimen laurdena haurrak lirateke, bonbardaturiko eskola-kopurua 142, eta osasun-zentroak, berriz, 50. Datuok berretsiko lukete eraso bereziki zuzendu zitzaizela txikienei. Hala, helburua litzateke ahalik eta kalte handiena eragitea, palestinarrek aurre egiteari utz diezaioten, azkenean beren herrialde sarraskitutik alde egitea erabaki dezaten eta herri gisa bertiko desagertu daitezkeen.

"Misio arrakastatsua opa dizuet". Halaxe bukatzen zen Elena

Valencianok joan den uztailen, Gazako biztanleen kontrako oldarraldi militar bete-betean, Madrillgo enbaxadore israeldarrari bidalitako gutuna. Norbaitek Internetera igotako eskutitz honetan, Madril uztear zegoela iragarri zuten, bertan PSOEko Nazioarteko Politikaren Idazkaria eta gero alderdiaren Idazkariorde Nagusia izan ostean. Ordura arte izandako adiskidetasuna eta harreman ona eskertzen zuten, hala nola jakinarazi Giza Eskubideen Batzordearen Presidente hautatu zutela Estraburgon, handik ere ordura arte bezala Israelgo ordezkariekin elkarlanean jardungo zutelakoan.

Beharbada, Elena Valencianoren asmoa ez zen une hartan Israelgo estatua burutzen ari zen "misioa" aipatzea, zalantza barik sobera ezagutzen bazuen ere Gazan gertatzen ari zena, nahikoa zen telebista



Julantxo Diez

Komite Internazionalistak


piztea. Edo, agian, horixe bera nahiko zuen. Baina, kasurik onenean ere, agerian uzten du Europako gobernuak, eta horiek kudeatzen dituzten alderdiei, herri palestinarra axola zaiena. Europako Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordearen Presidente berriak sustatuko ote du ekimenik genozidio palestinarra geldiarazteko? Proposatuko ote du zehapenik Israelgo estatuaren aurka? Derogatuko ote du EBk Israelgo estatuari ematen dion Lehentasuneko Bazkide Estatusa? Erango ote ditu auzitegiak Gaza triskantzaren arduradunak?

**Agerian uzten du
Europako gobernuak herri
palestinarrak axola zaiena**



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * *Etrea*
- * *Tresneria*
- * *Brikolajea*
- * *Ernilak*
- * *Giltzak*
- * *Sarrailagintza*
- * *Kit altzariak*

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



Urriaren 6an
Zorionak Irama zure
5. urtebetetzean!
Laztan handi bat
guraso, aitxita-
amama eta, batez
ere, lehengusu
Anerren partez.



Azaroaren 25ean
Zorionak Vero!!
Familia guztiaren
partez, ondo pasa
zure 28. urtebete-
tze egunean.



Azaroaren 8an
Zorionak Danel!
Segi futbolarari bikai-
na izaten. Muxu
handi bat familiaren
partez.



Azaroaren 5ean?
Zorionak Naia zure
6. urtebetetzean?
Oso ondo pasatu
eguna eta muxu
asko etxeko guztion
partez.



Abenduaren 3an
Zorionak Joel zure
gurasoen partez!
Muxu handi bat.
Maite zaitugu!



Abenduaren 2an (Miren) eta 8an (Ibai)
Zorionak amama Miren eta Ibai!
Patxo handi bat etxeko guztion partez!



Azaroaren 15ean
Zorionak Jon zure
urtebetetzeagatik!
Segi orain arte
bezala, beti pozik!
Besarkada handi bat
zure familiaren par-
tez!



Abenduaren 4an
Zorionak Ane neska
handi! Ondo-pasa
zure 8. urtebete-
tzean! Muxu handi-
handi bat etxeko
guztionez partez.

**Hurrengo
zenbakirako
azken eguna:
ABENDUAREN 10a**



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

MUGA  **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA - 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

MALLABIA 1957-1959

Argazki hau 1957-1959 ingurukoa da. Bertan agertzen dira Trabaku beheko taberna aurrian bertako jabe eta langileak.

Jose Totorika, Arrate Gerrikabeitia, Miren Arriaga, Jose Luis Mugarza, Carmen Gerrikabeitia, Bitoria Totorikaguena, Milagros Mugarza, Julia Totorikaguena, Juana Idarraga eta Matilde Martinez.



ERMUA 1943



Martin Amillategi eta Martina Urzuriaga euren 6 seme-alabekin: Maria, Pedro, Bienvenida, Juanito, Victoria eta Juanita. Zinkoneko base-errikoak. Jatorriz Sabon zen baserri-etxearen izena eta izendapen horrekin estreinekoz 1552 urteko bataio-agiri baten agertzen da idatzita. Zinkoren lehen aipamena, oster, 1886 urteko dokumentu baten dator; gaur egunera arte iraun du gatzizen horrek. Eibarko Castrillo izan zen erretratatzailerik.

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO
Zubiaurre, 21
ERMUA



Ostegunetan erdialdean eta ostiraletan San Pelayon, pintxo-poteak zentzu berria eman dio tabernetan ibiltzeari. Pote bakoitzarekin pintxo bat, hori da gakoa. Herriko hainbat ostalarik ekimena martxan jarri dute eta euren deia herritarrek jaso dute.

Nola ikusten duzu pintxo-potea egitearen ekimena? Nolako izaten ari dihardu esperientzia honek?



Ostegunetan jende asko nabari da tabernetan. Udan gehiago, hori bai. Gure taberna ez dugu pintxo-potera enfokatzen, baina eskaintzen ditugu batzuk, amaitu arte. Nabari da jendea pintxoak dituzten tabernetara doala. Ekimen ona da eta jendearentzat plusa da kalera irtetzeko.

Roberto Montoto, 34 urte



Ostegunetan jende asko dabil kalean pintxo-potearen ondorioz. Adin guztietako jendea. Izan ere, pintxo-potearen aitzakiarekin, jendea errazagoa egiten zaiolako lagunekin gelditzea. Gainera, horrela, astebururako motorrak berotzen dituzte. Ostalarientzat ere bultzada handia da.

Lurdes Lopez, 46 urte



Ostiraletan egiten dut pintxo-potea gehien bat, San Pelayo aldean. Oso ekimen ona dela deritzot. Lehen, adibidez, San Pelayon ia ez zebilen inor poteoan. Pintxoei dagokienez, ondo daude eta askotarikoak dira. Prezio onarekin gainera. Etxera afalduta joan zaitzke horrela.

Sergio Lope, 30 urte



Ostiralen batean egin izan dut, baina ez askotan. Funtzionatzen omen du, kiroldegiko nire ikasleek berehala ihes egiten baitute pintxo-potera. Kalera irtetzeko estrategia ona da, San Pelayon gero eta jende gehiago ikusten dut behintzat. Hala ere, hasiera batean pintxoak hobea goak ziren.

Sonia Souto, 27 urte



ZINEA

6tik 8ra

13tik 15ra

20tik 22ra

27etik 29ra

Ermua Antzokian.

Hainbat film eta ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 4

Hilak 11

Hilak 18

Ermua Antzokian.

Hainbat film. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 7

Hilak 14

Hilak 21

Hilak 28

Ermua Antzokian.

Hainbat film. 17:00etan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 24

Olentzero txikiren kalejira. 11:00etan.

Hilaren 26tik urtarrilaren 4ra

Gabonetako haur parkea: puzgarriak, jumping jolasak, ludotekak,

tailerrak, bideo-konsolak, ohe elastikoak... 11etatik 13tara eta 16etatik 20etara. Abenduaren 31n arratsaldean eta urtarriaren 1ean egun osoa, itxita. Udal Kiroldegian. Sarrera: 2€

Hilak 27

Haurrentzako antzerkia: "Hansel eta Gretel", Glu-Glu Produzioen eskutik. 17etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

Hilak 30

Pailazoaren ikuskizuna: "Terapiak", Txirri, Mirri eta Txiribitonon eskutik. 17etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

Hilak 31

Olentzeroren harrera eta kalejira. 18etan. Orbe kardenalaren plazatik.

**MUSIKA**

Hilak 12:

Rock kontzertua: Orihen + Jokin Gómez (Kontzertu solidarioa). 22:00ean. San Antonio basilizian.

Hilak 17:

Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:30etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohai-nik.

Hilak 20:

Soulfunk kontzertua: Vespa Groove. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 8€

Hilak 26:

Kontzertua: Pablo López. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 19:

"La función por hacer", Kamikaze Produzioen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 14

ERAKUSKETAK

Hilaren 8tik 14ra:

"Emakumeen artean sareak osatzen. Palestinako okupatutako herrialderako bidaia".

Hilaren 15tik 21era:

Gabonetako mahai apainduriak. 18etatik 20etara. Lobiano Kultur Gunean.

HAINBAT EKITALDI

-Hilaren 11tik 14ra:

Gaztela-La Mantxako jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Elkartearen egoitzan.

Hilaren 27an:

"Lapikotxiki. Kantuz kulunkatzen" liburuaren aurkezpena, Estibalitz Gonzalezen eskutik. 17:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

Patxi López

DANTZA

Hilak 12:

"Divenire" (Break dance), Circle of Trust eta Logela Multimediaren eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

ANTZERKIA

Hilak 5:

"Magnolias de acero", Izarraitz taldearen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Abenduaren 3a,
EUSKARAREN Nazioarteko eguna

Euskara ahora!



**Euskal Birusa Euskara Elkarteak sagarrak banatuko ditu Patxi plazan
euskararen erabilera sustatzeko**



**7. urteurrena
ospatuko dugu.
Eskerrik asko
zure konfidantzagatik!!**

**Baldespinako markesa 16, behea
Denda: 692 67 42 98 - Manu 667 61 87 11**